


Emakumeen aztarnak Hondarribian

Zergatik Hondarribia eta emakumeen inguruko ibilaldi bat?

Hondarribiko historia pertsonaia ospetsuz beteta dago: erregeak, militarrek, elizgizonak, artistak. Velazquez margolari famatua ere gure kaleetatik ibili zen. Baina non dira emakumeak Hondarribiaren historiaren bilakaeran? Ez al zuten gertakari garrantzitsuenetan parte hartu? Lope de Isastiren "Compendio historial de Guipúzcoa" lanean Hondarribiarekin harremana zuten berrogei pertsonaia berezi baino gehiago aipatzen ditu. 1625ean idatzia izan arren, deigarria da zerrenda osoan emakume bakar bat ere ez agertzea.

Historiaren joan etorrian ahaztuenak emakumeak izan gara beti. Orain gutxi arte, ez dugu kargu publikorik bete, ezta karrera politiko edo militarrik ere, eta horrek iturri historikoetan izen femeninoak ez egotea azaltzen du, emakumeak gizateriaren erdia izan arren. Garai historiko askotan, Antzinaroan, Erdi Aroan eta Aro Modernoaren garai handi batean ere emakumearen betebeharra emazte ona izatea zen, ugaltzea familia leinuari jarraipena emanez, eta honen legimititatea zalantzan jarri gabe. Etxeko lanen arduraduna ere bazen emakumea, besteak beste, seme-alaben hazkuntzaz eta ehungintzaz arduratuz.



Historiaren bilakaeran izan dugun parte-hartzearen gaineko erregistro publikorik ez egoteak ez du esan nahi, pasarte horietako funtsezko protagonistak izan ez garenik. Gertaera garrantzitsuenetan izen propioz parte hartzeko aukerarik ez bagenuen ere, gure presentzia funtsezkoa izan da, gehienetan anonimoki edo ezkutuan. Horren erakusgarri garai modernoko dokumentazioa da, non, notario-protokoloei esker, emakumeek bizitza ekonomikoan zuten parte hartzea funtsezkoa zela frogatzen da; askotan, negozioen jabeak edo horien kudeatzaileak zirela agerian jarritz. Hala ere, eta azken hamarkadetan azterketa historikoei genero-ikuspegia aplikatzeko metodologian asko aurreratu den arren, ilargiaren aurpegi ezkutuan bizitzen jarraitzen dugula dirudi. Gizonek zituzten pribilegioak baldintza berdinetan eskuratzeko aukerarik ez izateak, horien artean lehentasunezkoa zen eta oraindik ere baden hezkuntza, emakumeen ahanztura azaltzen du. 1862an Gorosabelek Hondarribiko hezkuntza publikoari buruz ematen zuen datua adibide argia da: "Urtean 4.400 errealeko aurrekontua duen oinarrizko eskola publiko bat dago herriko mutikoentzat, eta neskatoei zuzendutakoak 1.500 errealeko inbertsioa du". Aurrekontuan dagoen alde hori, ziurrenik, ikasleen kopuruan dagoen aldeak eragin zuen, eta horrek, aldi berean, emakumeek hezkuntza bera lortzeko historian zehar izan dituzten zailtasunak erakusten ditu.

Hondarribian barrena egindako ibilaldi hau herri honen historiarekin zerikusia izan duten emakume guztiei egindako omenaldia da. Hamar baino ez ditugu aukeratu, gaurdaino iritsi diren dozenaka izenen artean, baina gai sorta bat azaldu nahian aukeratu ditugu, gure protagonisten azpititulu gisa jasota agertzen diren hainbat arlori buruz hausnartu ahal izateko. Dokumentazio historikoak izan ohi duen joerak azaltzen du emakume ia guztiak gizarte klase altukoak izatea, nobleziakoak eta burgesiakoak, baina beste emakume xumeago batzuek ere badute lekua, eta horien izenak gaur egunera arte iritsi dira, hainbat arrazoi medio. Gainera, emakume bakoitza hirigune historikoko puntu bati lotuta agertzen da, ibilbidean erakusten den bezala, bere historia pertsonala indartuz.

Hondarribiaren eta bertako emakumeen historia ezagutzeko ibilaldia da honakoa eta harekin gozatzea espero dugu.



Gure protagonistak:

- María Teresa Austriakoa. Emakumeak eta ezkontza.
- Hélène Feillet. Emakumeak eta bidaiak
- Juana Mugarrieta. Emakumeak eta gerra.
- Inesa Gaxen. Emakumeak eta sorginkeria
- Katalina Gijongoa. Emakumeak eta itsasoa.
- Margaret Jordan Patterson. Emakumeak eta artea.
- Justizeko neska. Emakumeak eta sedukzioa.
- katalina Alkizakoa. Emakumeak eta merkataritza.
- Joana Gaztelakoa. Emakumeak eta boterea.
- Graciana Lizarraga. Emakumeak eta indarkeria.


Eskertzak: Cindy Nickerson, Emeki Emakume Elkartea, Félix Senosiain, Jim de The Bakker Project, Koldo Ortega.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Maria Teresa Austriakoa

Emakumeak eta ezkontza

Maria Teresa Austriakoa (1638-1683) Filipe IV.aren eta Frantziako Isabelen alaba zen. Bere printzesa izaerak, laster bihurtu zuen Europako aliantza politikoetarako funtsezko pieza. Horren lekuko Hogeita Hamar Urteko Gerra amaitzeko negoziazioak izan ziren, bere aitak Frantziakoa errege Luis XIV.arekin konprometitu zuen-eta. 1659an Pirinioetako Hitzarmena sinatu zen Faisaien uhartean, arrazoi honegatik Konferentziaren uhartea ere esaten zaio irlari. Urtebete geroago ezkontza planifikatu zen, eta bi herrialdeen arteko mugatik hurbil dagoen herri batean egin behar zela adostu zen. Hori dela eta, Hondarribia aukeratu zuten ospakizunerako. Garai hartan, oso ohikoa zen izaera politikoko itunak ezkontza-loturen bidez berrestea, eta ezkontza hau bereziki seinalatua zen Europako errege dinastiarik garrantzitsuenetako bi elkartzen zituelako: Habsburgokoa eta Borboiak.


Errege segizioa, erregea eta bere alaba buru zituena, 1660ko ekainaren 2an iritsi zen Hondarribira. Lagun zituzten nobleekin batera, ehunka morroi, 500 zaldizko soldadu eta 1.500 oinezko zekartzaten, 32 gurdi, 18 errege auto eta bestelako 70 ibilgailu. Erregeak eta infantak Karlos V.aren jauregian hartu zuten ostatu. Hiriko biztanleentzat ikuskizun ederra izango zen luxuzko erakustaldi hura.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Ezkontz hitzarmena hurrengo egunean izan zen parrokia-elizan, baina Luis XIV.a senargaia ez zen bertaratu. Botereen bidezko ezkontza bat izan zen, non Frantziako erregea, Donibane Lohizunen ostatu hartua zegoena, Luis Mendez Harokoak ordezkatu zuen. Gorteko protokolo osoa ezkontza ekitaldiaren zerbitzura jarri zen. Erregeak eta infanta karroza batean joan ziren elizara, ostatu hartzen zuten tokia gertu egon arren. Maria Teresak, Frantziako monarkiaren ikurra zen zitori hori lorez brodaturiko jantzi zuria zeraman soinean. Aita santuaren dispensa bat igorri behar izan zuten ezkontza ekitaldia ospatzeko, senargaiak odoleko lehengusuak baitziren, bai aitaren aldetik, zein amaren aldetik ere.

Ezkontzaren ostean, infantak Espainiako tronurako zuen eskubideari uko egin zion, bat egitearen garrantzi politikoaren seinale. Oraindik ere parrokiako beirate batean jasota dagoen zeremoniaren ondoren, eztei-oturuntza bat egin zen gazteluan. Hiru egun beranduago, Frantziako erregina berria eta bere aita, Filipe IV.a, motibo mitologikoekin apaindutako gondola dotore batean ontziratu ziren Faisaien uhartea helmuga. Han zain zituzten Frantziako erregina ama, Ana Austriakoa, Espainiako erregearen arreba zena, eta Mazarino kardinala. Ustekabean agertu zen Luis XIV.a gaztea, emaztea ezagutzeko irrikaz, eta pabiloiko atetik zelatatu zuen topaketa. Uharteko pabiloien antolaketa eta dekorazio guztia, luxuzko tapizekin, Velázquez margolariak diseinatu zuen, urte gutxi batzuk lehenago infanta irudikatu zuena eta gazteluaren apainketaz ere arduratu zena. Senar-emazteen arteko lehen topaketa ofiziala hurrengo egunean, ekainaren 7an, izan zen. Egun horretan, Maria Teresa Austriakoak eta Luis XIV.ak ezkontza-kontratua sinatu zuten, legezko lotura berretsiz, bigarren ezkontza balitz bezala. Filipe IV.ak eta Luis XIV.ak bi herrialdeen arteko bakeari eta adiskidetasunari eusteko promesa egin zuten. Egitura politiko horren erdian Maria Teresa gaztea tresna mesedegarri bat besterik ez zen.

Bizitza berri bat hasten zen ezkonberriarentzat. Egun horretan, agur esan zion aitari, eta, Faisaien uhartetik, beste ertzerantz joan zen, lehen aldiz, Frantziako lurra zapaltzera. Donibane Lohizunen, ekainaren 8an, ezkontzaren zeremonia errepikatu zuten, Baionako gotzainak gidatuta, oraingoan Luis XIV.a bertan zela. Historian emakume gutxi egongo dira euren ezkontza hiru aldiz ospatzeko moduko garrantzia dutenak.



Karlos V.aren gaztelua

Gazteluaren eraikuntza, hiriko tokirik altuenean kokatua, Antso Abarka errege nafarraren lana izan zen, Antso Jakitunak handitu zuen arren. Gaur egungo itxura Karlos V.aren esku-hartzeari zor zaio, gotorlekuaren eta egoitza inperialaren funtzioak lotu baitzituen, soiltasun handiz. Eraikinak, orduan, areto ezberdinak zituen, gelak, tropen ostaturako guneak, biltegia eta munizio gordetzeko ganbara, ziegak eta zalditegiak barne. Sarrerako atearen gainean Karlos V.aren armarri inperiala ikus daiteke. Bertan hartu zuten ostatu Maria Teresa Austriakoa infantak eta bere aita Filipe IV.ak Hondarribira errege ezkontzara joan zirenean.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Hélène Feillet

Emakumeak eta bidaiak

Ekintzailetzaz eta sormenez betetako bizitza izan zuen Hélène Feillet (1812-1889). Hélène Parisen jaio zen eta margolari familia bateko kide zenez, heziketa artistikoa jaso zuen. Bere aitak, Pierre Jacques Feillet, José de Madrazo buru zuen proiektu garrantzitsu batean parte hartu zuen Madrilen, Prado Museoko obra handiak litografien bidez erreproduzitzean zetzana. Bere amaren aldeko aitona ere margolaria zen, bere semearen maisua izan zen bitartean.

Hélènek eta bere ahizpa Blanchek, beren familia giroari esker, artista gisa prestakuntza jaso ahal izan zuten. Garai hartan oso emakume gutxiak jaso zezaketen arte hezkuntza, Arte Ederretako Eskoletan sartzea debekatua baitzuten emakumeek. Bi ahizpa hauek gainera profesionalki ere ekin zioten arteari, eta hori are bitxiagoa zen orduan. Pintura eta litografia landu zituzten, inpresio teknika honek harrizko plantxak erabiltzen dituen aplikatzeko. Hélènek Madrilgo giro artistikoa ezagutzeko aukera izan zuen, aitarekin eta familiarekin hara joan zenean, eta "El Artista" aldizkarian parte hartu zuen, argitalpen enblematiko honetan bost litografia argitaratuz. Madrilen egon zen bitartean, Pérez de Villamil espainiar erromantizismoko margolari eta grabatzaile esanguratsuenetako baten ilustrazioak erreproduzitzeko zituen bi litografia egin zituen, Mesonero Romanosen "Panorama Matritense" libururako.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



1834. urtetik aurrera, Héléne Baionan bizi izan zen, bere familiarekin batera. 1842an, Frantziako Barne Ministerioak margolan bat enkargatu zion, Orleanseko dukeak hiri honetara egin zuen bisita irudikatzeko. Lana erakunde batek enkargatu izanak, margolariak garai hartan zuen ospea adierazten du, izan ere pintura historikoa tradizionalki gizonei bakarrik esleitutako generoa zen.

Hiri horretan bizi zela, bere ahizpa Blancherekin batera, anbizio handiko proiektu bati ekin zion: euren litografiak ilustrazio gisa agertuko zituen Euskal Herriko hainbat gida turistikoko egin zituzten. Charles Hennebuttek editatu zituen, Blancherekin ezkonduetako inprimatzaile eta editorea. Garai hartan, argazkigintza oraindik ez zen erabat zabaldu, eta oso ohikoa zen grabatueta jotzea argitalpenak ilustratzeko. Lanik esanguratsuena "Guide du voyageur de Bayonne a St-Sébastien" izan zen, 1852an argitaratua.

Bi ahizpak Euskal Herrian zehar zehar ibili ziren, euren gidetan sartuko zituzten lekuak dokumentatuz. Horretan ere aitzindariak izan ziren; izan ere, XIX. mendean, bidaien eta esplorazioen mende handian, ez zen ohikoa emakumeek bidaiatzea. Begien aurrean zuten paisaiaren zirriborro bat egiten zuten arkatzez edo ikatz-ziriz, eta gero, Baionara itzultakoan, litografia bihurtzen zuten. Hondarribia irudikatzeko aukeratutako irudian, Kale Nagusiaren irudi bereizgarria ikus daiteke, Santa Maria atetik begiztatua, atzean Elizaren dorrea duela. Alde zaharreko soslaiaren ikuspegi eder bat ere badago, Hendaiatik irudikatua, eta beste bat, beharbada, Puntal ingurutik. Batzuetan, marrazkiak baztertu eta ez ziren litografia bihurtzen, Denda kaleko eta bertako hegalezko balkoien ikuspegi bitxi baten zirriborroarekin gertatu bezala. Ahizpek eskuz esku egiten zuten lan, eta batzuetan, batek marrazkia egiten zuen, besteak litografia egiten zuen bitartean.





Badiaren gaineko begiratokia

Hondarribiko txoko horretatik Txingudiko badiaren gaineko ikuspegirik ederrenetakoa ikus daiteke. Bidasoaren bokalearen konfigurazioa ikusiz gainera, hiru udalerrien egoera hobeto ulertzen da. Zenbatezinak dira ibaiaren beste aldetik, Hendaiatik, margotu diren Hondarribiko herriaren silueta bereizgarria duten artelanak. Askok kanpandorrea dute elementu adierazgarriena, Feillet ahizpen grabatuetan ageri den bezala.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak Andrea Villamor Sanchez

Juana Mugarrieta

Emakumeak eta gerra

1638ko udan Frantziako armadak Hondarribia setiatu zuen, Hogeita Hamar Urteko Gerraren testuinguruan (1618-1648). Harresien artean isolatuta geratu ziren biztanleek zein egoera beldurgarria bizi izan zuten adierazten duen dokumentazio ugari dago. Zehatz-mehatz ageri dira gerran parte hartu zuten gizonen izenak, baita garai hartan hirian bizi ziren gizonenak ere. Haatik, ez dugu apenas informaziorik emakumeek gatazkan zehar izandako bizipen eta jarduerari buruz.


Hala eta guztiz ere, mendeen joan etorriari aurre egin eta emakume izen propio bat iritsi da gaurdaino: Juana Mugarrietarena. 1638ko uztailaren 1ean, Guadalupeko ermitaren ondoan zuen etxean zegoela danbor hotsak entzun zituen. Leihora atera eta baratzean lanean zen Salvadora Zabaleta kideari soinuaren jatorriaren berri ote zuen galdetu zion. Juana eta Salvadora ermitako serorak ziren, eliza zaintzeaz eta mantentzeaz arduratzen ziren, emakume ezkongabe edo alargunek bete ohi zuten lanpostu hori. Ekialdera begiratu eta bandera zuriak soinean zuen jende multzoa ikusi zuten biek, eta soldadu frantsesak zirela ohartu ziren berehala. Juanak, ausart, eta zalantza izpirik gabe Guadalupeko Amaren irudia besoetan hartu eta, Salvadoraren eta bidean aurkitu zuten Katalina Labandibarren laguntzarekin, parrokia-elizaraino eraman zuten. Han bikarioari eman zioten, honek aldare nagusian ipiniz irudia gorde zezan. Ama Birjinaren eta Jesu Kristoren koroen bila ere itzuli zen Juana Guadalupea, eta haiek ere ekarri zituen, ondo gordetzeko.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura


Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Fedeak dena blaitzen zuen garai batean, Juanaren ekintza heroitasun gisa ulertu zen. Ez hori bakarrik, Frantziarren aurkako garaipena, irailaren 7an lortu zena, Guadalupeko Amari egotzi zitzaion ere. Ez zen mirari bakarra izan. Setioa gaindituta, irudia jatorrizko lekura itzultzeko konpromisoa hartu zuten Hondarribiko bizilagunek. Baina ezin izan zuten hitza bete, baseliza erabat suntsituta geratu baitzen liskarraren ondorioz eta, horregatik, parrokiari mantentzea erabaki zuten. Hilabete gutxiren buruan 1639ko martxoaren 21ean, eskultura elizatik misteriozuzki desagertu zen. Gau hartan, ohi bezala, harresietako eta elizako ateak itxi zituzten, baina Juana hurrengo egunean, egunero lez, irudia apaintzera joan zenean bertan ez zela ohartu zen. Elizkoiak otoitz egitera Guadalupeko ermitara joan zirenean Ama Birjina bere jatorrizko gurtza lekura itzuli zela egiaztatu zuten, ustez gizakiaren esku-hartzerik gabe. Juana Mugarrietak eta Salvadora Zabaletak lekuko gisa deklaratu zuten. Ama Birjina parrokiara itzuli zen berriro, baselizak oraindik ez baitzituen beharrezko segurtasun baldintzak, baina apirilaren 4an Guadalupeko eliza erabat egokitua, bertara itzuli ahal izan zuten. Horrelako agerpen eta desagertzeak, garai hartan ohikoak zirenak, fedea sustatzeko beharrek ere arrazoi ekonomikoekin zuten lotura. Baselizaren zaharberritze azkarra izan zen baina, benetako miraria, hilabeteak hondamen-egoeran eman ondoren.

Juana Mugarrieta, ordea, ez zen izan 1638. urteko setio egoerako emakume protagonista bakarra. Nahiz eta Historiaren begietara ikusezin geratu, beste emakume anonimo batzuek ere paper garrantzitsua jokatu zuten garai hartan. Hondarribiko Udal Artxiboko liburu batek jasotzen duenez, "Nahiz eta setioak hirurogeita bederatzi egun iraun, adoretzu eta irmo defendatu zen munduaren begien aurrean; harresian hiru zuloekin, eta bakarrik bostehun gizon, bizilagun zein soldadu, osasuntsu eta zaurituak, hiru erasori eutsi zioten egun batean, emakumeak (gizon kopuru txikiagatik) antzinako Amazonen antzera ekinez". Ez da testigantza bakarra. Jose Moretek, setioaren ostean idatzitako eta erreferentziazko idazkietako bat kontsideratutako testu batean, honela zioen: "Zein adorerekin ekin zioten biztanle gutxi horiek, heriotzarekiko mespretxuz, etsaien tropa ugariaren aurka, hain arriskuz beteriko setioa gainditzeko ahaleginari, emakumeak eta mutilak ere ahaleginduz". Garai hartako beste dokumentu batean ere ezaugarri bereko testigantzak jaso ziren: uztailaren 3an, "Ehun emakume irten ziren hiritik, gizonen jantzita, batzuk pika soinean, beste batzuk arkabuzarekin, posturen batean jartzeko eskatuz, bizitzarekin bakarrik uztea eskainiz". Filipe IV.a Frantziakoak, frantziar armadaren aurkako garaipenaren ondoren, hirira bidali zuen gutunean, honakoa zioen: "Emakumeek ere beharrezko guztia egin zuten, hain adoretzu gobernatuz, non arrisku handieneko ekintzak ere bere gain hartu zituzten".



Parrokia

Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mariaren eliza interes arkitektoniko handiko eraikina da, estilo artistiko ezberdinak ditu, nahiz eta elementu nagusiak XV. eta XVI. mendeetan eraiki ziren. Bere estilo nagusia gotikoa da, batez ere iparraldera begiratzen duen hegalean nabaritzen dena, arku konopialeko portada eder batekin eta hiriko armariaren irudikapen batekin. Parrokiak ere baditu eranskin errenazentistak, sarrera nagusiari dagokiona kasu, eta dorre barroko bat. Absidearen gunea Erdi Aroko harresiko horma-atalen gainean eraiki zen eta gaur egun eraikinen azpian ezkutatuta dago.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Inesa Gaxen

Emakumeak eta sorginkeria

Inesa Gaxen, 1566. urtearen inguruan, Nafarroa Behereko Bastida-Arberoan jaio zen, baina hogei urtez bizi izan zen Irunen, eta beste zazpi urtez Hondarribian. Hendaian sorginkeriagatik salatua, espetxeratua eta Bordeleko Parlamentuan epaitua izan ondoren, joan zen Irunera bizitzera, nahiz eta azkenean absolbitua izan zen. Inesa Gaxen baina, bigarren aldiz izan zen sorginkeriagatik salatua. 1611. urtean izan zen eta ordurako Hondarribian bizi zen. Hiriko neska batzuek salatu zuten Inesa, baita herriko beste zenbait emakume ere -Maria Illarra, Mayora gisa ezagunagoa, Maria Etxegarai, Maria Garro, Maria Migel Oyanguren eta Katalina Bereasarra-. Salatzailleen artean Isabel Aranokoa zegoen, Maria Etxegarai akusatuaren alaba, zeinak, hamalau urterekin, sorginkeria-jardueretan parte hartzera behartua izan zela salatu zuen. Testigantzen arabera, Inesa eta beste emakumeek Jaizkibelen, Santa Barbara ermitaren inguruan eta Santiago eta San Felipe ermiten ondoko belardietan akelarreak egiten zituzten. Isabel gaztearen testigantza beldurgarria zen, izan ere, ohean lo zegoela Inesa Gaxen bere gelan sartu eta ukendu batez igurtzi ostean, sorbalda gainean hartu eta Bidasoaz bestaldeko ihitoki-gune batera eraman zuela azaldu zuen. Bertan bilera makabro haietako bat egiten ari zirela zioen neskatoak, eta bekokian bi adar eta haren begietatik sugarrak irteten ziren deabru bat zutela buru. Han, Jainkoari uko egitera behartua izan zela zion, eta apoak gordetzen jarri zuten, sorginkeriarekin lotura handia zuen animalia da apoa, ondoren, bere etxera itzultzeko. Oso antzekoa izan zen Jacoba Estakonaren testigantza, zeinaren arabera Inesak eta Mariak elorri beltz batez jo zuten Jesu Kristori mespretxu egiteari ukatzeagatik. Pasaiaiko portuko hainbat itsasontzi hondoratzearen arduraduna Inesa izan zela ere adierazi zuen Jacobak.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Inesa urte hartako maiatzaren 6an epaitu zuten, beste emakumeekin batera. Garai hartan, 45 urte zituen eta Pedro de Sanjarekin ezkontuta zegoen. Epaiketa herriko Kontzejuaren egoitzan egin zen. Gaur egun parrokiako kanpandorra den dorretxea baliatzen zuten egoitza gisa. Entzutetsua izan zen galdeketetan erakutsitako erresistentzia, non akusazioa bere gain hartzeari uko egin zion emakume bakarra izan zen; gainontzekoek akelarreetan parte hartu zutela aitortu zuten, lekukoek esan zuten bezala. Gabriel Abendaño batxilerrak latinez itaundu eta ur bedeinkatua bota zion, barruan deabruren bat baldin bazuen, honek hitz egin eta irten zedin eskatuz. Inesak, aldiz, deabrurik ez zuela eta bera sorgina ez zela erantzun zion. Hasiera batean bere burua errugabetzat jo zuen Maria Illarrak, baina, bere aitorpena aldatu zuen, erruduntasuna onartzeko jasan zituzten presioen erakusgarri. Inesarekin izan zuten aurrez-aurrekoan, Maria Illarrak eta Maria Etxegaraik sorginkeriararen akusazioa babestu zuten, eta Inesa sorginen maistra eta kapitaina zela esan zuten, bai eta akelarreetan agintzaile handiena ere.

Bere erresistentzia ikusita, Inesa, urte bereko ekainean, Logroñoko Inkisizioko auzitegiaren esku utzi zuten, hari eta gainerako akusatuei indultua emanez amaituko zuena. Ebatzi zizkieten ondasunak ere berreskuratu zituzten, baina Hendaiara erbesteratu zituzten. Gizonezkoek kontrolatutako mundu batean, naturarekin edo praktika paganoekin zerikusia zuen edozein jarduera, bereziki emakumeen presentzia zutenak, arriskutsutzat jotzen zen. Sorginkeria salaketak, azken finean, emakumeek menderatutako guneak kontrolatzeko beste modu bat baino ez ziren.





Kontzejuaren dorrea

Gaur egun ikus dezakegun eliza eraiki aurretik, bazen aurreko tenplu erromaniko bat. Alboetako batean, modu exentuan, Aristoy dorretxea zegoen. Hiriko artxiboa gorde eta justizia administratzen zen bertan, bai eta Hiriko Kontzejua elkartu ere. Gaur egun kanpandorre bihurtuta ikusten dugu, hiriko armarría erakutsiz. Dorretxea Erdi Aroko hiriguneko eraikin zaharrenetakoa zen, ziur asko Antso VII.a Azkarraren garaikoa, XII. mendearen amaieran eta XIII. mendearen hasieran gobernatu zuena. Zeregin defentsiboak betetzen zituen eta 1498ko sute izugarriaren ondoren bizirik iraun zuen eraikin gutxietako bat izan zen, bertan gordetako dokumentuak erre ziren arren.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Katalina Gijongoa

Emakumeak eta itsasoa

Oraindik ere gordeta dagoen testamentuari esker, Katalina Gijongoa 1555. urtean hildako Hondarribiko bizilaguna izan zela dakigu. Juanes Casanuevaren alarguna zela ere aipatzen du dokumentazioak. Emakume berezi honen biografia marrazteko zertzelada gutxi ditugun arren, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan hari lotutako dozena bat dokumentu aurki ditzakegu.

Batzuetan auzi jartzaile gisa, bestetan demandatu gisa igaro da historiara Katalina Gijongoa. 1541eko uztailean, dagoeneko Juanesen alarguna izaki, bere koinatu Esteban Casanuevak burdinazko kintal batzuen salmentarekin lortutako irabaziak eskatu zizkion, bai Katalinari eta baita Jordana Montaotekoari. Urte hartan ere, Joan Aldavek, burdinaren salmenta ere galdegin zionak, legalki berari zegozkion ondasunak ontzi batetik ateratzen utzi behar izan zion Katalinari. Itsasontziko ura xukatze ur-ponpa eta bonbarda zepo bat zeuden bertan, garai hartan erabiltzen zen kalibre handiko kanoia zen bonbarda. 1542. urteko beste dokumentu batek Katalina Gijongoak eta Katalina Casanuevak, biak Hondarribikoak, Irunen, eta 30 urteko iraupenarekin, hainbat errota alokatuta zituztela frogatzen du.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Baina Katalinak parte hartzen zuen negozio interesgarriena arrantza zen. 1551ko martxoaren 28an Katalina Gijongoaren eta Juanot Adunakoaren arteko auzia jasotzen zuen dokumentu bat sinatu zen. Pasaiaiko portuan ainguratuta zegoen "Santa María" izeneko ontzi baten jabeak ziren biak. Ternuan arrantza egiten zuen itsasontzi bat zen, eta bakailaoa harrapatzera eta balea ehizatzen joaten ziren, Juanot maisua zutela. Hondarribiarrek Kanadara egindako espedizioak 1541. urtetik daude dokumentazioan jasota. Katalinak eta Juanotek, agiriak dioenez, erdibana ordaindu zituzten ontziaren gastuak eta, beraz, irabaziak erdibana banatu beharko zituzten.

Arrantza-jardueretan emakumeek duten parte hartzea saregile gisa edo arraina prestatzen egindako jardunarekin lotzen da batik bat, biak ala biak ezinbestekoak, noski. Baina merkataritzaren alorrean gertatzen den bezala, non emakumeak enpresa garrantzitsuen buru izan zitezkeen, itsas munduan ere ez zen salbuespenezkoa arrantzarako ontzien eraikuntza finantzatzen zuten edota Ternuarako espedizioak sustatzen zituzten emakume armadoreak aurkitzea.





Santa Maria atea

Santa Maria atea, egun bezala, harresiaren bi sarrera nagusietako bat zen. Erdi Aroan eta Aro Modernoan, hirirako sarbidea kontrolatzeko zubi altxagarri bat zuen. Arkuaren gainean ikus dezakegun armarria 1694. urtekoa da, baina ez zen hori bere jatorrizko kokapena. 1879an Amuteko Kaputxinoen komentutik eraman zuten, ordura arte eliza horren atean zegoen. Hondarribiko armarria osatzen duten elementuen artean, hiriko giltzak dituen aingeru bat ikus dezakegu, zutik dagoen lehoi bat, ispilu bat duen sirena bat eta granada bat daraman Triton bat ere. Balea ehizatzen duen itsasontzi bat ere ageri da, arrantzak eta itsasoak Erdi Aroko hiriko ekonomian izan zuten garrantziaren erakusgarri.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Margaret Jordan Patterson

Emakumeak eta artea

Artistentzat oso erakargarria izan da beti Bidasoa ibaiaren ingurua. Txingudiko badiako paisaia, bertako landaredia eta argi-aldaketak, Bidasoaren ibai ahoa edota Hondarribiko erdigune historikoaren ezaugarri bereizgarriak maiz izan dira hilezkortuak askotariko margolarien eskutik. "Bidasoako Eskolaz" ere mintzo izan da pinturaren alorrean. Baina ba al zen Bidasoa inguruan lan egin zuen emakume margolaririk? Emakumeak ez dira baldintza berdinetan sartu artearen mundura, eta pinturan izen bat egitea lortu zutenak, askotan, ahanzturara kondenatuak izan dira.

Margaret Jordan Patterson margolari estatubatuarra Java uhartean jaio zen 1867. urtean. Aita marinela zuen eta familiarekin bidaiatzen zuen, baita bere jaiotze unean ere. Bere bizitzako lehen urteak aitari mundu osoan zehar laguntzen eman zituen, eta ez zuen inoiz alde batera utzi bidaiekiko eta itsasoarekiko haurtzaroan piztutako grina. Arte ikasketak New Yorkeko Pratt Institutuan egin zituen, ekialdeko, eta bereziki Japoniako, artea maite zuen Arthur Wesley Dow margolariaren eskutik. Paisaia eta natura hilak landu zituen, batez ere olioan, baina akuarela, gouache edo arkatzezko marrazkiak ere egin zituen. Hala ere, bere obraren teknikarik adierazgarriena zurezko blokeekin inprimatzea izan zen, japoniar jatorriko praktikari jarraituz. Ethel Mars artistaren eskutik Parisen ikasitako teknika honetan benetako aitzindaria izan zen.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia




Irakaskuntzan jardun zuen Bostonen, eta udan lanik ez zuenez, bidaiatzeko baliatzen zuen. Mende amaierako mugimendu artistikoak bertatik bertara ezagutzeko Margaret Europara joan zen. Lehen egonaldia Parisen egin zuen 1899an. Interes handiko esperientzia izan zuen hura, izan ere maiz itzuli zen Europara bere bizitzan zehar, lehenik iparraldeko herrialdeetara eta ondoren Italiara eta Frantziara, bertan denboraldi luzeak emanez.

Bidaia horietako batean Euskal Herria bisitatu zuen, Hondarribitik igaroz. Zumardiko eremuan gutxienez hiru olio pintura egin zituen, in situ eta aire zabalean margotuak seguruenik. Bere estiloaren ezaugarri pertsonalenak ikusten dira lan horietan: argiaren eta atmosferaren tratamendua, kolorearen erabilera bikaina eta paisaiarekiko interesa. Provincetowneko Bakker galeriak (Massachusetts), margolariari erakusketa bat eskaini zionak, bere artxiboen artean Hondarribiko postal bat du, Guadalupeko ermitaren zuri-beltzeko argazkia ageri dena, Margaret 1909ko maiatzaren 8an bere familiari bidali ziona. Bostongo Copley galerian 1910ean egindako erakusketa baten harira jaso zuen kritiketako batean, honako hau esaten zen: "San Juan, Hondarribia eta San Pedroren koadro guztiek kolorez betetako leku zoragarri eta bitxi hauek margotzeko izan zuen plazeraz hitz egiten dute. Akuarela hauen indarra izugarria da, kolorezko orgiaz ere hitz egin daiteke. Margolaria aske sentitu da eta bereugarria kutsakorra da". Margolariak egindako egonaldiarekin gozatu zuela argi dago.


Bere bizitzan zehar, hainbat erakusketa egin zituen. Bai Parisen, baita Bostonen eta San Frantziskon ere, non ohorezko aipamen bat irabazi zuen Panama-Pacific Nazioarteko Erakusketan; edo Filadelfian, bertako akuarela lehiaketan domina lortuz. New Yorkeko Metropolitanekeo, Londresko Victoria & Albert Museumeko edo Bostongo Arte Ederren Museoko bildumen barruan bere lanak daude. Museo horietan aritzen zen lehen emakumeetako bat izan zen Margaret Jordan Patterson.





Zumardia

"Alameda" izenez ezaguna den arren, berezko izena Vazquez Díazen Zumardia da, Huelvan jaio arren hiriarekin lotura handia duen margolariaren omenez. Daniel Vázquez Díaz (1882-1969) Parisera bidean zen 1905ean, Hondarribitik igaro eta, bere paisaiak liluratuta, denboraldi batez herrian geratu zenean. Ordutik, urtero bueltatzen hasi zen Hondarribira, bere kolore eta argiekin liluratuta, Margaret Jordan Pattersoni gertatu zitzaion bezala.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Justizeko neska

Emakumeak eta sedukzioa

Gure historiaren parte diren emakume asko erabat anonimoak dira. Euren izenak, gizonen dokumentatutako gertaera historikoen erretolika artean galdu egin dira, batzuetan, istorio handien protagonista izan arren. Justizeko neskaren inguruan, adibidez, bere jatorriaren berri dugu soilik: Justizeko orubean kokatutako etxe batean bizi zen, Jaizkibelen magalean, gaur egun Guadalupe bezala ezagutzen dugun Olearso muinoan.

Elezaharrak dioenez, Antso Abarkak (938-994), -gaur egun Arma Plazan dagoen gazteluaren lehen eraikuntza egozten zaion nafar erregeak-, hiriko harresietatik kanpo zegoen landetxe bat zuen jabegoan. Ehizarako aukera eskaintzen zion parajeak, eta beraz, aisialdirako eta entretenimendurako leku gogokoa izanik, maiz hartzen zuen bertan ostatu. Egonaldietako batean, erregea dagoeneko alargunduta zegoela, bere landetxetik gertu zegoen baserri batean bizi zen alabetako baten edertasunaz maitemindu zen. Kondairaren arabera, Antso Abarka "Gutziz ederra zara" hitzekin zuzendu zitzaion neskari. Erregeak seme bat izan zuen berarekin, Justiz leinuko lehensemea, eta deitura, neska gaztea ikustean erregearen adierazpenetik jaso zen.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Antso Abarkak ez zituen ama eta semea alde batera utzi, eta inguruko lurak gehitu zituen familiaren lurrei. Horretarako, "begien bistan zegoen guztia" gehitzea eskaini zien, bertako biztanleen harridurarako. Guadalupe inguruan izen bera mantentzen duen baserri bat dago oraindik. Urte batzuk beranduago, 1613an, Filipe III.aren erregealdian, Diego Urbinak armarren erregistroaz arduratzen zen kargu publikoak, leinuaren jatorria aitortzen zuen ziurtagiri bat eman zion familiari, Antso Abarkaren ondorengoak zirela aitortuz. 1870ean, Miguel Rodríguez Ferrer antropologoak baserria bisitatu zuenean, Diego de Urbinaren ziurtagiria bertan mantentzen zutela frogatu zuen.

Justiz familiaren leinuko belaunaldiek kargu politiko eta militar esanguratsuak bete zituzten bai Espainian, baitan Amerikan ere. Juan Justizeko kapitainak adibidez, 1713an Hondarribian kapilautza bat sortu zuen, Habanan idatzitako testamentuan jaso zuen bezala; Bere semea, Manuel José Justizekoa, Habanako gobernadore eta kapitain nagusia izan zen eta bere anaia, Miguel, Hondarribiko alkatea izan zen. 1758an, aldiz, Fernando VI.a erregeak "Justizeko markesa" titulua eman zion Juan Jose Justizekoa eta Umpiérrezi. Argi dago familia honetako kide ospetsu askoren izenak ezagutzen ditugula, baina oraindik ez dakigu nola deitzen zen abizen hau sortu zuen neska gaztea.

Hainbat eta hainbat emakumerekin gertatu den bezala, Justizeko neska ere Historiaren joan-etorrian galdu da. Jaizkibelgo magalean, alabaina, oraindik gogoan dute neskatoa, bere izena daraman eta Kantauri itsasoari so egiten dion leku ederrean. Neska haren edertasunak Antso Abarka liluratu zuela besterik ez dakigu, baina seguru irudi horren atzean egundoko emakume bat zegoela, Justizen leinu luzea erditu zuena.





Erreginaren Gotorlekua

XVI. mendeko harresitutako barrutiaren angeluetako batean dagoen Erreginaren Gotorlekutik, mendebalderantz, Guadalupe ermita ikus dezakegu. Jaizkibelgo magalean dago Guadalupe, Justizeko parajetik gertu, Antso Abarka maitemindu zuen neskatoaren omenez du Justiz deitura eta oraindik izena mantentzen duen baserria dago. Baluarteak, bere posizioa zela eta, eraso ugari jasan zituen Hondarribian izandako setio egoera ezberdinetan. Uste denez, Joana I.a Gaztelakoari egozten zaio izena, bere erregealdian hasi baitzen eraikitzen. 2007an induskatu eta birgaitu zuten bisitatzeko.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Katalina Alkizakoa

Emakumeak eta merkataritza

Beti pentsatu izan dugu, orain gutxi arte, enpresa ekonomiko garrantzitsuak, merkataritza-transakzio handiak barne, gizonen eskumena izan direla. Garai modernoko dokumentazioa aztertzen badugu baina, oso bestelako errealitate batekin egiten dugu topo, agerian geratzen baita emakumeek ere paper garrantzitsua jokatu zutela enpresa-jarduera jakin batzuetan. Euskal Herriko kostaldeko herrietan bereziki nabarmena da hori, ohikoa baitzen gizonek Ternuako arrantza-tokietara joan edo Indietako Bidea egiten denboraldi luzeak etxetik urrun ematea. Senarrak kanpoan zeuden bitartean edo gazte alarguntzean, emakumeek negozioen kontrola bereganatu eta merkataritza-enpresak ondo baino hobeto kudeatzeko nahikoa adore izan zuten.

Emakume merkatarien eredu esanguratsua dugu Katalina Alkizakoa. Jose Antonio Azpiazuk "Mujeres vascas, sumisión y poder" liburuari esker bere ibilbidea arakatu daiteke. Katalina Alkizakoa familia ospetsu bateko kidea zen, bere senarrak eta seme-alabek kargu garrantzitsuak bete baitzituzten administrazio zein itsas armadan. Oso gaztetatik hasi zen negozioen munduarekin harremanetan. Bere lehen arrastoa 1553. urtekoa da, hiriko kontzejuaren jabetzako lonjak alokatu zituenekoa, alabaina bere senarra Juan Alcegarren heriotzatik aurrera aurki daiteke maizago bere izena merkataritza hitzarmenetan. 1573an "Espiritu Santua" itsasontziaren jabe gisa ageri da Katalina, Espainia Berriko merkataritzarako erabilia.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez


Bibliografia



1581an, oraindik itsasontziaren jabe izanik, berriro agertzen da dokumentazioan. Oraingoan, Esteban Bulanoren esku utzi zuen, edozein bidetan erabiltzeko eta berak egoki iritzitako prezioak ezartzeko askatasuna emanez. Sevillako artzapezpikuak, Cristobal de Rojas Sandovallek, Karlos V.aren gorteko pertsonaia ospetsuak eta kasualitatez Hondarribian jaio zenak, bere oinordetzan esleitu zizkion ondasunak kobratzeko eskumena ere ematen dio Esteban Bulanori. Dokumentazioaren arabera, Juan de Goyaz ere ahalorde gisa da izendatua. Oraingoan 1588an, Indietan hildako Diego Balmasedakoari zegozkion kobrantzak egiteko. 1594an, aldiz, bere seme Pedro eta Joan Alcegarri ahalordeak ematen dizkie. Bi semeak Sevillan bizi ziren, bertako portutik abiatzen baitziren Ameriketara joaten ziren merkataritzarako ontziak, euren negozioen tamainaren erakusgarri. Dokumentu horiek guztiek "ahalorde-eskritura" izena zuten, eta notario baten sinaduraren bidez, norbaitek, kasu honetan Katalinak, bere legezko ordezkari gisa beste pertsona bat izendatu eta honek bere izenean jarduteko balio zuten.

Katalinak armadore gisa egindako jarduerak, XVI eta XVII. mendeetako dokumentazioan bizirik iraun duten beste emakume batzuen izenekin batera, Europako herrialdeen eta Indiaren arteko merkataritzarako itsasontzien eraikuntzan ere emakumeak sustatzaile izan zirela frogatzen du.





Denda Kalea

Erdi Aroko hirietan hain ohikoa zen gremioen araberako banaketa hura ez da apenas ageri Hondarribiko kaleen izendegian; Denda kalea, baina, salbuespen horietako bat da. Izenak kalearen merkataritza-bokazioari egiten dio erreferentzia. Gremio-izaera mantendu duten beste bi adibide Harategi eta Zilardegi kaleak dira. Erdi Aroko hirigune historikoa artisau eta merkataritza jarduera handia zuen leku zaratatsu gisa irudikatu behar dugu, izan ere, hiriko portura iritsitako salgaiak bertan ibiliko ziren gora eta behera.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Joana Gaztelakoa

Emakumeak eta boterea

Joana Gaztelakoa (1479-1555), historiara Joana Eroa bezala pasa dena, Elisabet I.a Gaztelakoaren eta Fernando II.a Aragoikoaren alaba zen. 1496an, Filipe Habsburgokoarekin ezkondu zuten Joana; Felipe Ederra bezala ezagunagoa, Austriako artxidukea eta Germaniako Erromatar Inperio Santuaren oinordekoa. Bikote gaztea Flandriako gortean kokatu zen, izan ere euren ezkontza politikoa izan zen. Bertan, Gaztela eta Aragoiko koroen oinordeko bihurtu zela jakin zuen Joanak, bere bi anaiak eta iloba hil ondoren. Gaztelako erregina, 1504an ama hil zen arte, eta Aragoiko erregina, 1516an, aitaren heriotza arte, bihurtuko ez bazen ere, Gaztelako gorteen tronuaren oinordeko gisa zin egiteko unea zen hura. Horretarako, Brusela eta Toledo lotuko zituen bidaia luzea egin behar izan zuten Joanak eta Felipek. Sei hilabete behar izan zituzten Gaztelako Gorteetara iristeko, eta, azkenean, 1502ko maiatzean egin zuten juramentua.

Flandriatik zetorren jarraigoa errege karrozak, Borgoinako 150 arkulariz eta zaldiz zihoazen 1.200 soldadu baino gehiagoz osatutako errege eskolta eta bidaiarako beharrezko tresnak zeramatzaten ehun orga baino gehiagok osatzen zuten. Hura parez pare aurkitzea ikuskizun ederra izango zen garai hartako herritarrentzat. Bidasoa zeharkatu ostean, 1502ko urtarrilaren 26an, Hondarribira iritsi ziren, Gaztelako koroko etorkizuneko erregeek zapaltzen zuten lehen herrira. Ohore guztiekin hartu zituzten Bernardo de Rojas Sandoval jaunak, Deniako markes, Lermako duke eta Elisabet eta Fernandoren konfiantzazko pertsonak, eta Hernando de Luna Hondarribiko orduko alkaideak. Hiriko giltzak eman zizkieten bikote gazteari, alde zaharreko kaleak eta balkoiak tapiz eta oihalez apainduak zeuden bitartean.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Joanak eta Felipek gazteluan hartu zuten ostatu. Tradizioz transmititu den narrazio herrikoiaeren arabera Egiluzeko Jauregian igaro zuten gaua, izan ere, egonaldi honek eman dio Joana Eroaren izena jauregiari. Haatik, bitxia den arren, eraikuntza, gaur egungo itxurarekin behintzat, Joanaren bisitaren oso ondorengoa da, XVII. mendekoa hain zuzen ere. Hiru egun eman zituzten Hondarribian, eta, ondorioz, halako jarraigo zabal batek beharrezkoa duen hornikuntza arazoak sortu zituen herrian.

Joanaren istorioak, etorkizun oparoa izan arren, bestelako bide batzuk hartu zituen. Bere senarra hil ostean, 1506an, boteretik baztertua izan zen, eta, hiru urte beranduago, Tordesillasen atxilo bizitzera behartu zuten; lehenik bere aitaren aginduz, eta, ondoren, bere seme Karlos I.aren erabakiz, Arma Plazako gazteluaren egungo itxuraren arduraduna dena. Joanak buruko gaixotasun bat zuela argudiatu zuen bai aita eta baita semeak ere, eta honek "Eroa" ezizenarekin ezagutzera ematea ekarri zuen. Historiara igaro denaren arabera, maitasun eromen bat izan zen Joanarena; bere jeloskortasunak eraginda hasieran, eta bikotearen heriotzak sortutako atsekabeak larrituta ostean. Bere senarraren hilketza zortzi hilabetez Gaztelako lurretan zehar lagundu zuen Joanak, bere eromenaren ospea elikatu besterik egin ez zuen bidaia izan zen hura. Joanari ezarritako itxialdiak, baina, eromenarekin baino, haren gaineko kontrolarekin, eta aitaren eta semearen interes politikoekin zuen zerikusia. Historiara Joana Eroa bezala igaro izanak boterea eskuratzen duten emakumeen bizitza eta egintzaren aitzinean ageri diren aurreiritziak berretsi besterik ez du egiten.





Egiluz Jauregia

Egiluz Jauregia Joana Eroaren Jauregia bezala ezagutzen den arren, erreginak hiria bisitatu zuenean oraindik ez zen eraiki, ez behintzat gaur egun ezagutzen dugun moduan. Aurrealdeak, errenazentista estilokoa eta harlanduz eraikia, apaingarri ugari ditu. Frontoi triangeluar batek osatzen du sarrera eta erdian, zutik diren bi lehoik armarri ikusgarri bat eusten dute. Jauregiaren izena, ikuspuntu historikotik zuzena ez bada ere, garrantzitsua da horrelako eraikin batek emakume izena edukitzea.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Graciana Lizarraga

Emakumeak eta indarkeria

Ezer gutxi dakigu Graciana Lizarragari buruz, Lorenzo Mugarrietarekin ezkondata egon zela eta bere familiaren interesak sutsuki zaintzen zituela baino ez. Hain zuzen ere, bere alaba, Maria Mugarrieta, babesteko nahiak delitu bat salatzaera eraman zuen, eta ekintza honi esker garaiko dokumentu batean jasota geratu da bere izena, Historiara lotuz. 1594ko uda amaieran, Martin Echeverria salatu zuen, Pedro Urbina kapitainaren konpainiako soldadu bat. Une hartan, Hogeita Hamar Urteko Gerraren atarian, ohikoa zen gotorlekuan soldadu kuarteldunak egotea.

Gracianaren testigantzaaren arabera, bere senarra Ternuako arrantzarako guneetan zegoen bitartean, Martinek bere alaba Maria limurtzen saiatu zen, "Jainkoaren eta bere kontzientziaren beldurra geroratuta". Soldaduak hitz goxoak esan zizkion neskatila erakarri eta bereganatzeko, berarekin ezkonduko zela aginduta gainera. Neska gazteak, "Dontzeila birjina, zintzoa, bizitza, ospe eta iritzi onekoa" zela, soldaduekin birjintasuna galdu zuen, "haragiz ezagututa". Ezkondata ez zeudela kontuan hartuta, gertakaria izugarria zen garai hartarako.

Parean Berdintasun Elkartearen proiektua

Testuak: María José Noain Maura

Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografia



Ohorea garrantzi handiko kontzeptua zen Aro Modernoan. Baina auzi moralaren erdian, auzi ekonomikoa ere bazegoen. Birjintasunak prezio bat zeukan garai hartan. Dokumentuan ageri zenez, Gracianaren arabera, bere alaba Mariari herriko harresien barruan eta hirurehun dukatetan baloratutako etxe bat zegokion dotean. Martin Echeverriak eragindako kaltearen aurrean, soldadua bere alabarekin ezkon zedila eskatzen zion amak Justiziarri, edo, bestela, ezkonsari gisa etxearen balioari zegozkion hirurehun dukatak eman ziezazkiola. Bidegabekeriaren dimentsioa kontuan hartuta bidezko konpentsazio ekonomikoa zen. Ez zuen axola adostutako harremana izan zen ala ez, hori ez zen kontuan hartzen delitua baloratzeko orduan ere. Maria Mugarrietaren hitza eta iritzia auzitik kanpo geratzen zen. Familiaren ohorearekin eta ekonomiarekin lotutako auzia zen hura.

Horrelako gehiegikeriak ez ziren salbuespenezkoak izango garai hartako Hondarribian, are gehiago herriko gizon askok etxetik kanpo denboraldi luzeak ematen zituztela kontutan hartuta, Ternuan arrantzan zirela, edo Indietan merkataritzan zirela. Ohikoa zen arrantzale batek urtean sei eta zortzi hilabete bitartean etxetik kanpo igarotzea, eta merkataritzako ontzi batean ibiltzen zirenak, berriz, hiru eta lau urte artean egon ohi ziren kanpoan. Urruntze hauetan beti emakumeak izaten ziren kaltetuenak, eta zinez esanguratsua da bere alabarentzat ohore-galtze bat zena salatuz Graciana Lizarragak erakutsi zuen ausardia.

Istoria ez da hemen amaitzen, Maria Mugarrietaren izena berriz agertzen baita urte batzuk beranduagoko dokumentazioan. 1605ean, Mariak bere senar zenari, Hondarribiako armadari soldadu gisa egindako zerbitzuagatik, zor zizkioten 33.404 marabediak erreklamatu zituen. Paperetan gainera, bere senarraren izena jasotzen da: Martín Echeverría. Mariak eta Martinek beraz, hain istorio gorabeheratsuaren ondoren, ezkondu egin ziren.





Mugarretenea Etxea

Luxuzko etxe hau, Mugarrieta Jauregia ere deitua, XVI. mendean eraiki zen, estilo errenazentistan eta harlanduzko fatxadarekin. Kondairaren arabera, etxea amaren bidez hartzen zen oinordetzan eta beraz, emakumeena baino ezin zen izan. Egia esan, azken hamarkadetan hala izan da, nahiz eta kasualitate hutsa izan izan zitekeen. Ez dago inolako daturik Graciana Lizarraga eta haren alaba Maria Mugarrieta etxe honetan bizi zirenik pentsarazten digunik, baina alabaren abizenak eraman gaitu hemen kokatzera.



Parean Berdintasun Elkartearen proiektua


Testuak: María José Noain Maura


Ilustrazioak: Andrea Villamor Sanchez

Bibliografía

Bibliografía

- AGOTE AIZPURUA, Xabier (1999): "Antigua estación ballenera de Jaizkibel", en Boletín Luis de Urantz Kultur Taldea, nº 19, pag. 125-132.
- AROZAMENA AYALA, Ainhoa: "Gaxen, Inesa". En Auñamendi Eusko Entziklopedia.
- ARZADUN, Juan (1909): Las brujas de Fuenterrabía. Proceso del siglo XVII. El 6 de mayo de 1611 en Fuenterrabía. Ed. Paul Géuthner.
- AYUSO SÁNCHEZ, Cristina (2009): "El mundo laboral femenino en el País Vasco Medieval" en Sancho el Sabio, nº 30, pag. 115-135.
- AZPIAZU, José Antonio (1995): Mujeres vascas, sumisión y poder: la condición femenina en la alta Edad Moderna. Haranburu Editor.
- COLOMER, José Luis (2003): "Paz política, rivalidad suntuaria. Francia y España en la isla de los Faisanes" en Arte y diplomacia de la Monarquía Hispánica en el siglo XVII. Casa de Velázquez.
- CONDE DE LLOBREGAT (1930): Fuenterrabía. Noticias históricas.
- FERNÁNDEZ ÁLVAREZ, Manuel (2001): Juana la Loca. La cautiva de Tordesillas. Espasa.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2018): Cosas de la Alde Zaharra. Hondarribiko Udala.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2018): "El viaje de Juana la Loca y Felipe el Hermoso". Cosas de la Alde Zaharra, nº 21. Hondarribiko Udala.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2018): "Alcaide perpetuo de Fuenterrabía". Cosas de la Alde Zaharra, nº 30. Hondarribiko Udala.

- 
- GOIRICELAYA, Ernesto (2018): "1680-1685. La historia olvidada". Cosas de la Alde Zaharra, nº 38. Hondarribiko Udala.
 - GOROSABEL, Pablo de (1972b): Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con apéndice de las cartas-pueblas y otros documentos importantes. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. Ed. facsímil de 1862.
 - GUEVARA, José Ramón (2012): "La pesca de la ballena en Hondarribia" en Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco, nº 7, pag. 181-196.
 - HONDARRIBIKO UDALA (2019): Diagnóstico de la igualdad de Mujeres y Hombres en Hondarribia.
 - HONDARRIBIKO UDALA (2019): I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Hondarribia.
 - HUXLEY, Selma (1982): "Unos apuntes sobre el papel comercial de la mujer vasca en el s. XVI" en Eusko Ikaskuntza. Sociedad de Estudios Vascos. Cuadernos se sección: Antropología, Etnografía, Prehistoria, Arqueología, nº 1, pag. 161-165.
 -
 - LAFUENTE, Modesto (1888): "El Príncipe de Condé penetra en España y sitia Fuenterrabía" En Historia General de España. Montaner y Simón Editores, pag. 276-277.
 - MACÍAS, Olga et al. (2016): Emakumeak eta itsasoa = Las mujeres y el mar. Untzi Museoa-Museo Naval.
 - MARTINEZ DE ISASTI, Lope (1972): Compendio historial de Guipúzcoa. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. Ed. facsímil de 1850, obra original de 1625.
 - MÚGICA, Serapio (1915): Geografía de Guipúzcoa. Geografía del País Vasco-Navarro.

- 
- NICKERSON, Cindy: Margaret Patterson: master of color and design. Cahoon Museum of American Art.
 - NOAIN MAURA, María José (2005): Los orígenes de Hondarribia: de su pasado romano a 1400. Ayuntamiento de Hondarribia.
 - ODRIOSOLA OYARBIDE, Lourde (1999): "La industria de la construcción naval en Fuenterrabía en la Edad Moderna (siglos XVI-XVIII)" en Boletín Luis de Uránzu Kultur Taldea, nº 19, pag. 9-45.
 - ORELLA, José Luis, coordinador (2005): Historia de Hondarribia. Ayuntamiento de Hondarribia.
 - PORTU, Florentino (1975): Fuenterrabía. Notas históricas y curiosidades hasta 1969.
 - PORTU, Florentino (1978): Santuario de Guadalupe.
 - RODRIGUEZ FERRER, Miguel (1907): "Caserío Real Justiz en la ciudad de Fuenterrabía". Revista Euskal-Erria, t. 56, p. 103-108.
 - SHELLMAN, Feay; COLEMAN, James R. (1988): Margaret J. Patterson, 1867-1950 : retrospective.
 - SÁEZ GARCÍA, Juan (2020): Egiaren kanta. Hondarribia 1638. Arma Plaza Fundazioa.
 - SÁEZ GARCÍA, JUAN (2020): Diario del sitio. Hondarribia 1638. Arma Plaza Fundazioa.
 - VV.AA. (2015): Las hermanas Feillet. Hélène y Blance Feillet: pioneras de la pintura en la Euskal Herria del s. XIX. Museo Zumalakarregi.

- 
- VV.AA. (2020): Aintzina eta gaur. Emakume talde liburua = libro colectivo de mujeres. Emeki Elkartea.
 - VV.AA.: Las hermanas Feillet.
<https://www.zumalakarregimuseoa.eus/es/actividades/investigacion-y-documentacion/las-hermanas-feillet/#dibujos->
 - VV.AA.: El patrimonio religioso de Hondarribia en 15.000 pasos. Arma Plaza Fundazioa.
 - WADE LABARGE, Margaret (1988): La mujer en la Edad Media. Editorial Nerea.

Documentación histórica / Dokumentazio historikoa

- Catalina de Gijón, Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa, 3/0317,A:10r-10v. 28 de marzo de 1594.
 - Graciana de Lizarraga, Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa, AHPG-GPAH 3/0415,A:96, 24 de agosto de 1594.
- 